# Irati Inoriza

*Nadie se vaya dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo*

Irati Inorizak ikus-entzunezko instalazio bat aurkezten du, urtsutasun-forma zaharrak eta berriak esploratzen dituena, eta errealaren esperientzia jariakorra sustatzen duena, errealaren, birtualaren eta onirikoaren artean mugituz.

Gauez filmatuta, sinkronizatutako igerilari-talde bat erabat geldi agertzen da igerileku baten ondoan. Ur kloratuaren eta lehorraren artean, liminalitatean bizi dira eta gorpuztu egiten dute. Eskultura monumental baten irudi atletikoak, gorputz eta muskulu nabarmenduak dituztenak; azal hezea eta garrotan kiribildutako ilea duten itsas izakiak; gizakiak, begiak zorigaitzez kliskatuz eta ezpainak erakutsiz hurrengo arnasaren bila; izaki sintetikoak, jantzi berde azidoekin, zeinek ur kimikoan eroso flotatzeko gai diren ninfa digitalak irudikatzen dituzten. Soinua -zarata zuria- eta igerilekuko uraren uhindura arina dira "Ofeliarentzako ariketak" izeneko bederatzi minutuko grabazioaren lehen eszenako izaki bizidun bakarrak, harik eta, astiro, banan-banan, izaki femenino horiek bizia hartu, eta uraren sakonean pilatzen diren arte. Egokia da elementu horiei erreparatzea, Inorizaren lanaren muinera iristeko, eta ulertzeko mitologiarekin, antropologiarekin eta artearen historian izan duen irudikapenarekin duen harremana eta, orobat, ekologiari, teknologiari eta aro digitalari buruzko pentsamendu feminista eta teoria garaikidearekin duen lotura, bai eta sumatzeko ere hori guztia nola korapilatzen den errealaren konplexutasunean. Shakespeareren Ofelia erotasunez itotzen da Hamleten maitasun toxiko izugarriaren ondoren. Baina lente feminista baten bidez, uler liteke bera ur bihurtzen dela, atzemanezin, zapalkuntza falikoari aurre eginez eta bere esentzia likidoa besarkatuz, harik eta bere gorputza paisaia bihurtzen den arte.

Grabazioak aurrera egin ahala, txalapartaren perkusioak igerilariak animatu, eta uretan dantzatzera bultzatzen ditu. Beren mugimendu sinkronizatuek gorputzaren mugak gainditzen dituzte, indarra, erresistentzia, malgutasuna eta grazia erakutsiz, elementu jariakorrarekin harmonian eta ausardiaz. John Everett Millais-en Ofelia (1852) margolaneko posea imitatzen dute, bere esentzia bereganatuz eta haragiztatuz. Ur azpian izaki bihurtzen dira -lore, itsas izaki fin, gorputz kolektibo-, baina, soinu-bandak ere gogoratzen duenez, arnasketak bihurtzen ditu izaki zaurgarri ezinbestean.

Beti azaleratu behar dute berriro, azkar, banaka arnasa berreskuratuz, berriro gizakiak direla. Gorputza da ontzi nagusia munduarekiko harremana ulertzeko, zeina niaren eta bestearen arteko interdependentziek eta atalase gorabeheratsuek eta, orobat, ahuleziek eta esposizio arriskutsuek osatzen duten.

Mugitzen ari den gorputza jariatzen den zerbaiten metafora gisa erabiltzen du artistak. Kasu honetan, ur-gorputz batek, iragazketak dituen gorputz batek, nolabaiteko porositate-maila behar du singular/plural, barruan/kanpoan, eta, oro har, itxuraz bananduta dauden entitate edo eremuen artean. Bestalde, badirudi Inorizarentzat presakoa dela teknologia non kokatu jakitea. Grabazioan zehar, kamerak organikoki jarraitzen die igerilarien gorputzei. Sakonera sintetiko kloratuetan murgiltzen da, hondoratze-soinuen eta gainazalera egindako azaleratze pindartsuen artean agertzen da berriz, eta bera ere urezko gorputz bihurtzen da. Bi kanaleko bideoak ikuspuntu desberdinak aurkezten ditu aldi berean. Batzuetan kanal bakar bihurtzen da, eta badirudi behar bezala kokatzen duela testuinguruan osotasuna, teknologia, natura eta kulturaren arloen kategorizaziorik gabeko ulermenarekin. Inorizak birmoldatzeko "sentsazio ozeanikoak" duen ahalmena besarkatzen du

Grabazioa amaitzean, soinu-performance baten audio-erregistroak bide ematen dio Inorizak antolatutako koreografia-instalazioari. "Airera hegan egiten zuen ura" izenburupean, badirudi piezak gorputza deitoratzen duela eta beste izaki munstro bat bihurtzen dela: lamiak, giza itxura eta ahate-oinak dituzten euskal mitologiako izakiak, Inorizak, haurtzaroan, Kadagua ibaiaren inguruan sutsuki eta egonarriz aurkitu nahi izan zituenak. Obraren hasieran, "Bertsolaritza" dago,

Irati Inoriza presenta una instalación audiovisual que explora viejas y nuevas formas de acuosidad y estimula una experiencia fluida de lo real, moviéndose entre lo real, lo virtual y lo onírico.

Filmado de noche, un grupo de nadadoras sincronizadas aparece en absoluta quietud junto a una piscina. Entre el agua clorada y la tierra, habitan y dan cuerpo a la liminalidad. Figuras atléticas de una escultura monumental, con cuerpos y músculos perfilados; criaturas marinas de piel húmeda y pelo enroscado en tentáculos; humanas, parpadeando azarosamente y exponiendo sus labios en busca del siguiente aliento; seres sintéticos, con trajes verde ácido que retratan a ninfas digitales, capaces de flotar cómodamente en el agua química. El sonido -un ruido blanco- y la leve ondulación del agua de la piscina son los únicos entes animados de la primera escena de la grabación de nueve minutos "Ejercicios a Ofelia", hasta que lentamente, una a una, estas criaturas femeninas cobran vida y se arremolinan en las profundidades del agua. Resulta pertinente detenerse en estos elementos para llegar al núcleo de la obra de Inoriza y de su relación con la mitología, la antropología y su representación en la historia del arte, pero también con el pensamiento feminista y la teoría contemporánea sobre la ecología, la tecnología, la era digital, y cómo todo ello se entrelaza en la complejidad de lo real. La Ofelia de Shakespeare se ahoga de locura tras el abrumador amor tóxico de Hamlet. Pero a través de una lente feminista se podría entender que ella, en cambio, se convierte en agua, inaprensible, resistiendo la opresión fálica y abrazando su esencia líquida, hasta que su cuerpo se convierte en paisaje.

A medida que la grabación avanza, la percusión de la txalaparta anima a las nadadoras y las emplaza a bailar en el agua. Sus movimientos sincronizados superan los límites corporales revelando fuerza, resistencia, flexibilidad y gracia, en armonía y atrevimiento con el fluido elemento. Imitan la pose del cuadro de Ofelia (1852) de John Everett Millais, apropiándose y encarnando su esencia. Bajo el agua se convierten en un ente -una flor, una refinada criatura marina, un cuerpo colectivo- pero, como la banda sonora también recuerda, la respiración es lo que las convierte inevitablemente en un ser vulnerable. Están destinadas a emerger siempre de nuevo, rápidamente, recuperando individualmente el aliento, humanas de nuevo. El cuerpo se convierte en el recipiente principal para comprender la propia relación con el mundo, formado por interdependencias y umbrales fluctuantes entre el yo y el otro, pero también de vulnerabilidades y exposiciones peligrosas.

La artista utiliza el cuerpo en movimiento como metáfora de algo que fluye. En este caso, un cuerpo de agua, un cuerpo con filtraciones, implica un cierto nivel de porosidad entre singular/plural, dentro/fuera y, en general, entre entidades o ámbitos aparentemente separados. Lo que también parece urgir a Inoriza es el hecho de dónde situar la tecnología. A lo largo de la grabación, la cámara sigue orgánicamente los cuerpos de las nadadoras. Se sumerge en las profundidades sintéticas cloradas, resurge entre sonidos de hundimiento y burbujeantes afloramientos a la superficie, y se convierte ella misma en un cuerpo de agua. El vídeo de dos canales presenta diferentes puntos de vista simultáneamente. En ocasiones se convierte en uno solo y parece contextualizar acertadamente el conjunto en una comprensión sin categorizaciones de los ámbitos de la tecnología, la naturaleza y la cultura. Inoriza abraza la potencialidad de la "sensación oceánica" de reconvertirse.

Al finalizar la grabación, el registro de audio de una performance sonora da paso a la instalación coreográfica orquestada por Inoriza. Bajo el título "El agua que volaba al aire", la pieza parece lamentar el cuerpo para convertirse en otro ser monstruoso: las Lamiak, criaturas de apariencia humana y pies de pato de la mitología vasca que Inoriza trató de encontrar con ardor y paciencia durante su infancia en los alrededores del río Kadagua. La obra comienza con una "Bertsolaritza" (canción tradicional vasca) que canta un poema dedicado a las Lamiak

Verde Pratok lamiei eskainitako poema bat abesten da. Haragitze-ariketa bat da, non hitzak fonetikan urtzen diren eta xuxurlen eta soinu-gorpuzdunen hizkuntza berri batera zabaltzen diren. Hala grabazioak nola soinu-piezak erakusketaren espazioa bera kutsatzen dute, non ur kloratuzko iturri bat harro altxatzen den iluntasunetik azalduz. Ahate-itxurako zeramikazko larruek dir-dir egiten dute eta edukiontzi huts bihurtzen dira orain libre dagoen gorputz batentzat. Usaina fina baina garbia da, eta gonbit egiten die ikuslearen begiei atseden hartzeko eta beste zentzumen batzuk esploratzeko. Inorizak uzten du ura eta gaua intuiziorako leku bihur daitezen, gorputzak harreman jariakorrean egon daitezen naturarekin eta teknologiarekin. Artistak euskal mitologia, artearen historia eta kultura garaikidea hartzen ditu erreferentzia gisa, elkarren artean konektatutako harreman-sare bat induskatu eta aurreikusteko, zeinak gure gorputz indibidual eta sozialari eragiten dioten topaketak eta talkak dituen abiaburu.

"*Nadie se vaya dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo*"

Erakusketa hau ondoz ondoko hiru ekitalditan banatuta dago, bederatzi minutukoak: Ejercicios a Ofelia, El agua volaba al aire eta A flor de piel.

I. ekitaldia_Ejercicios a Ofelia. Bideoa 9:54min

II. ekitaldia_El agua volaba al aire. Soinua 9min

III. ekitaldia_A flor de piel. Instalazioa isilik 9min

Caterina Avataneo

escrito por Verde Prato. Se desarrolla en un ejercicio de encarnación donde las palabras se disuelven en la fonética y se abren a todo un nuevo lenguaje de susurros y sonidos corpóreos. Tanto la grabación como la pieza sonora contaminan el espacio de la propia exposición, donde una fuente de agua clorada se alza orgullosa emergiendo de la oscuridad. Las pieles de cerámica en forma de pato brillan y se convierten en contenedores vacíos de un cuerpo ahora libre. El olor es delicado pero nítido, e invita a los ojos del espectador a descansar y más bien a explorar otros sentidos. Inoriza deja que tanto el agua como la noche se conviertan en un lugar para la intuición, donde los cuerpos estén en relación fluida con la naturaleza y la tecnología. La artista toma la mitología vasca, la historia del arte y la cultura contemporánea como referencias para excavar y prever una red de relaciones interconectadas, elaborada a partir de encuentros y colisiones que afectan a nuestro cuerpo individual y social.

I"*Nadie se vaya dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo*"

Esta exposición esta dividida en tres actos consecutivos de nueve minutos de duración: Ejercicios a Ofelia, El agua volaba al aire y A flor de piel.

I. acto_Ejercicios a Ofelia. Video 9:54min

II. acto_El agua volaba al aire. Sonido 9min

III. acto_A flor de piel. Instalación en silencio 9min

Caterina Avataneo